

## OHAR OROKORRAK

### OHAR BILDUMAK

Gogorazten dizuegu, **ostiralero Ohar Bilduma bidaltzen dugula. Ohar bilduma hauek eskuragarri izango dituzue beti ALEXIAko plataforman.** Horretarako, zuen ordenagailu edo Sakeleko Telefonotik, Alexia-ko app-ra sartu behar duzue. Aldi berean eskuragarri izango dituzue, ikastolako web orrian, “Informazio-oharrak” atalean.

Alexiaren erabileraren inguruko gidak zintzilikatuta ditugu Ikastolako web orrian zuen eskura. Bertan aurkitu ahalko dituzue, Alexia eta “Alexia familia” mugikorrerako app-aren erabileraren inguruko gidak. Ikus honako [ESTEKA](#).

---

### AUTOBUSA GELTOKI ALDAKETA

Ikastolako autobusak, Bizkaia kaleko 21 zenbakian zuen geltokian izan diren arazo batzuk medio, zarauzko udaltzaingoko mugikortasun ataletik jakinarazi ditute, **geltokia salbide kaleko biribilgunean dagoen markesinara mugituko dela.** [ESTEKA](#) honetan ikus dezakezue udaletik jasotako jakinarazpena xehetasun gehiagorekin.

---

### IKASTOLARA SARRERA IRTEERAK

Ohar honen bitartez, COVID 19aren aurrean jasotako jarraibideak aztertuta eta egoerak hala ahalbidetzen digula ikusita, pozgarria da guretzat, arauak malgutzen jarrai dezakegula zuei adieraztea. Hala, mezu honen bitartez, Ikastolarako sarrera-irteerak pandemia aurretik egiten genituen moduan egiten hasiko garela adierazi nahi dizuegu, baina egungo ordutegiak mantenduz. HH2/HH3 eta HH4an, gurasoak geletaraino sartu ahal izango zarete zuen hurrekin eta bertan egin agurra. Kontuan izan, Plazara ezin direla ume txikien sillitak sartu ezta fruta ez den janaririk ere. HH5etik aurrera,sarrera ordutan, ikasleak geletara etorriko dira, kanpo guneetan elkartzeari utziz. Beharra duten ikasleen kasuan gurasoak laguntzera sar zaitezketekete. Baita irakaslearekin egoteko beharra baduzue ere.

Irteera ordutan berriz, orain arteko guneak mantenduz, hor jasoko dituzue zuen hurrak. (Idazkaritza inguruan obretan hasiak baikara).

---

## IKASTOLAKO OBRAK

Ikastolako obrak direla eta, tarteka, ikastolako kirol guneko zati bat okupatu beharko da, beharrezkoak diren lanak egin eta materialak pilatzeko. Okupazio hauek puntualak izango dira eta gure jarduna ahalik eta gutxien oztopatzen saiatuko dira. Aldi berean, okupatzen dituzten espazioak behar den bezala hesituko dira arriskuak ekiditeko.

---

## BIHAR PROZESUA

Honen bitartez animatzen zaituztegu BIHAR PROZESUAN parte hartzera. [ESTEKA](#) honetan aurkituko duzue honen informazioa. Galdetegi hau betetzea eskertuko genizueke:

<http://form.jotform.com/220693974521360>

---

## GIPUZKOAKO BERTSO IDATZIEKIN ESKOLARTEKOA (ONLINE)- SARIDUNAK

Gipuzkoako bertso idatzian parte-hartzaileek eskualdeka hartu dute parte eta gure eskualdean gure ikastolako saridunak hauek izan dira:

- 2012-2013 urteetan jaiotakoak: Ekhi Zaldua Gabilondo
  - Aipamena: Beñat Zabaleta Orella
- 2010-2011 urteetan jaiotakoak.
  - Aipamenak: Unax Zaldua Gabilondo eta Andoni Aramberri
- 2008-2009 urteetan jaiotakoak.
  - Aipamena: Adei Urbitarte Aiestaran
- 2004-2007 urteetan jaiotakoak: Jakes Etxeberria Oñatibia

ZORIONAK!! LAN BIKAINA EGIN DUZUE

Sari-banaketa saioak presentzialki egingo dira, bertaratzen direnentzat eratuko dugun bertso-saiotxo baten inguruan. Ekitaldiok eskola orduz kanpo izango direnez, saridunekin berekin jarriko gara harremanean ekitaldiak non-noiz diren jakinarazteko.

---

## UDALEKU IREKIAK (SORGINMUINO)

Aurten UDALEKU IREKIEN antolaketari ekin diogu. Bertan irteerak, hondartza, tailerrak, jolasak, humorea, abestiak, etab. luze bat izango ditugu. Aisialdi ekintzen bidez lagunartean eta begiraleen gidaritza eta ardurapean, giro jatorrean ONDO PASATZEKO aukera izango dute haurrek. Udalekua, HH3 eta LH3 bitarteko haurrei zuzenduta dago (biak barne). ADI: Aurten, udalekuen elkartzeko puntua, IXPILLA (Mollarri kalea 11) izango da. Taldea osatzeko gutxieneko kopuruak ezarri behar ditugu, beraz, jasotzen dugun izen-ematearen baitan, sortuko ditugu taldeak. Taldea sortzeko gutxienez 8 haur behar dira. Udalekua aurrera eramateko 2 talde osatu behar ditugu txanda bakoitzeko gutxienez. Izena emateko epea: APIRILAREN 29a. Honetarako bete [GALDETEGI HAU](#).

Ordutegia: 09:00 - 13:00

PREZIOAK:

1 aste: 85 €

2 aste: 135 €

3 aste: 180 €

4 aste: 210 €

5 aste: 235 €

Behin izena emanda, ez da diru itzulketarik egingo.

**HH4****Maiatzak 9 IRTEERA KRISTINA ENEARA**

<b>Maila</b>	HH4 Maila osoa	Prezioa: 8,53€
<b>Nora</b>	Kristina Eneara	Irteera ordua : 9:15
<b>Noiz</b>	Maiatzak 9	Itzulera ordua : 16:15
<b>Garraioa</b>	Autobusa	
<b>Aipatzekoak</b>	Eraman beharrekoa: Hamaiketakoa eta bazkaria. Puntualitatea beharrezkoa da bertan hitzartuta dugun jarduera burutzeko	

## LH OHARRAK

### LH 1

#### Maiatzak 9-10 IRTEERA TXURRUKARA

<b>Maila</b>	LH1 Maila osoa	Prezioa: 53,75€
<b>Nora</b>	Txurrukara	Irteera ordua : ohiko ordutegia
<b>Noiz</b>	Maiatzak 9-10	Itzulera ordua : ohiko ordutegia
<b>Garraioa</b>	Autobusa	
<b>Aipatzekoak</b>	<b>Motxila txikian:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hamaiketakoa</li><li>• Ura</li><li>• Eguraldiaren arabera ( eguzkitako krema, txamarra ...)</li></ul> <b>Beste motxila edo maleta batean:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Lozakua.</li><li>• Aldatzeko arropa</li><li>• Etxeko zapatilak.</li><li>• Nezeserra.</li><li>• Pijama.</li></ul>	

**OHARRA:** Ikasleeren batek irteera garaian, botikaren bat hartu beharko balu (antibiotikoa,...), medikuaren ziurtagiria ekarri behar dela jakinarazten dizuegu.

---

### LH2

#### IRTEERA IRRISARRILAND

Lh2ko ikasleak maiatzak 9 eta 10ean Irrisarrilandera joango dira. Datorren astean eraman beharrekoak jakinaraziko zaizkizue.

Bestalde gogoratu, Ikasleeren batek irteera garaian, botikaren bat hartu beharko balu (antibiotikoa,...), medikuaren ziurtagiria ekarri behar dela jakinarazten dizuegu.

---

### LH5

#### GARBIGUNEA

Maiatzaren 6an, LH5eko ikasleak txanda desberdinetan Zarauzko garbigunera joango dira bertako kudeaketa ezagutzera.

## DBH OHARRAK

### DBH1

DBH1eko ikasleek maiatzaren 3an eta 9an **elikadurari** buruzko saioak izango dituzte, gai honi buruzko ezagutzak izan ditzaten. Saioak Leire Izagirre dietistak eta Felix Zubia medikuak emango dituzte.

---

### DBH4

Datorren astelehenean DBH4ko ikasleak hain desiratua izaten den ikasbidaia izango dute. Herrialde Katalanetan ibiliko dira lau egunez merezitako txangoaz gozatzen: raftinga, barrankoak, Bartzelona, Portaventura... Ikastolako ibilbide luze-motza honen ondoren ederki asko irabazitako saria. Goza dezatela!

## BESTELAKO OHARRAK

### HIZTUN EKOLOGISTAREN DEKALOGOIA

ZER DUTE ESATEKO ZARAUZTARREK HIZKUNTZAREN INGURUAN?

### [IKUSI BIDEOA](#)

## OHAR OROKORRAK/ NOTIFICACIONES GENERALES

### BOLETINES INFORMATIVOS

Les recordamos que todos los viernes enviamos el Boletín Informativo. **Estos boletines están siempre disponibles en la plataforma de ALEXIA.** Para ello, debéis acceder desde vuestro ordenador o teléfono móvil a la APP de Alexia. También podéis acceder a los boletines informativos a través de la página web de la ikastola.

En la página web de la Ikastola, tenemos disponibles guías explicativas acerca del uso y primeros pasos en el uso de Alexia y su app para el móvil "Alexia Familia". Pueden consultarlo en el siguiente [ENLACE](#).

---

### CAMBIO DE PARADA AUTOBUS

Debido a algunos problemas en la parada de Bizkaia kalea 21, desde la sección de movilidad de la Policía Municipal de Zarautz, hemos recibido una notificación indicando que se va a proceder a cambiar dicha parada. **La ubicación de la nueva parada se situará en la marquesina que está junto a la rotonda de la calle Salbide.** En el siguiente [ENLACE](#) podéis ver con más detalle la comunicación recibida desde el Ayuntamiento.

---

### OBRAS DE LA IKASTOLA

Debido a las obras de la ikastola, puntualmente se ocuparán de forma intermitente parte de la zona deportiva de la ikastola para realizar los trabajos y acopio de materiales necesarios. Estas ocupaciones serán puntuales y tratarán de interferir lo menos posible en nuestra actividad. Al mismo tiempo, se instalarán vallas de seguridad para evitar problemas y que no surjan incidentes.

---

## PROCESO BIHAR

Os animamos a participar en el proceso BIHAR. En el siguiente [ENLACE](#) encontraréis más información. Os agradeceríamos que rellenéis el siguiente formulario:

<http://form.jotform.com/220693974521360>

---

## ENTRADAS Y SALIDAS A LA IKASTOLA

A través de esta nota y después de analizar las pautas recibidas ante la COVID 19 y viendo que la situación nos lo permite, nos alegramos comunicaros que podemos seguir flexibilizando las normas. Así, mediante este mensaje os indicamos que comenzaremos a realizar las entradas y salidas a la Ikastola tal y como lo hacíamos antes de la pandemia, pero manteniendo los horarios actuales. En HH2/ HH3 y HH4, los padres podréis acompañar a vuestros hijos/ hijas hasta las aulas. Recordar que a la Plaza no se pueden meter las sillitas de niños pequeños ni comida que no sea fruta. A partir de HH5, en las horas de entrada, los alumnos vendrán a las aulas, dejando de juntarse en zonas exteriores. En el caso de los alumnos que lo necesiten, pueden acceder con la ayuda de sus padres/madres. Incluso si necesitáis estar con el profesor/profesora podéis entrar a las aulas. A las horas de salida, recogeréis a vuestros hijos/hijas en las zonas exteriores actualmente adecuadas para ello. (Puesto que en torno a la Secretaría estamos de obras)

---

## PREMIADOS EN LOS BERTSOS ESCRITOS (ONLINE) INTERESCOLARES

En el campeonato de bertso escrito de Gipuzkoa por comarcas, los premiados de nuestra ikastola han sido:

- Nacidos en 2012-2013: Ekhi Zaldúa Gabilondo
  - Mención: Beñat Zabaleta Orella
- Nacidos 2010-2011.
  - Menciones a Unax Zaldúa Gabilondo y Andoni Aramberri
- Nacidos en 2008-2009.
  - Mención: Adei Urbitarte Aiestaran
- Nacidos en 2004-2007: Jakes Etxeberria Oñatibia

## ZORIONAK!! HABÉIS HECHO UN GRAN TRABAJO

Las sesiones de entrega de premios se realizarán presencialmente en torno a un bertso-saioa que organizarán para los asistentes. Dado que los actos serán fuera del horario lectivo, nos pondremos en contacto con los premiados para informarles de la fecha de celebración de los mismos.



---

## COLONIAS DE VERANO (SORGINMUINO)

Este año hemos iniciado la organización de las COLONIAS DE VERANO. Realizaremos todo tipo de actividades como salidas, playa, talleres, juegos, humor, canciones, etc. A través de actividades de ocio los niños y niñas tendrán la oportunidad de pasarlo bien en un ambiente agradable, guiado por sus monitores y monitoras. El campamento está dirigido a niños y niñas de HH3 a LH3 (ambos inclusive). Atención: este año, el punto de encuentro de las colonias será IXPILLA (Mollarri 11). Los grupos se formarán en función de las inscripciones. Se fijarán unos mínimos para de participantes para poder llevar a cabo las colonias de verano. Para crear el grupo se necesitan al menos 8 participantes, y se deberán formar al menos 2 grupos por turno.

Horario: de 09:00 a 13:00

Plazo de inscripción: hasta 29 de abril. Para inscribirse cumplimentar el siguiente [FORMULARIO](#).

### PRECIOS:

1 aste / 1 semana: 85 €

2 aste / 2 semanas: 135 €

3 aste / 3 semanas: 180 €

4 aste / 4 semanas: 210 €

5 aste / 5 semanas: 235 €

Una vez inscrito, no se realizará ningún reembolso.

## HH OHARRAK / NOTIFICACIONES HH

### HH4

#### Maiatzak 9 IRTEERA KRISTINA ENERA

<b>Maila/ Curso</b>	HH4 Maila osoa	Prezioa/ Precio: 8,53€
<b>Nora / Destino</b>	Kristina Enea	Irteera ordua/ Hora salida : 9:15
<b>Noiz /Cuando</b>	Maiatzak 9 / 9 Mayo	Itzulera ordua/ Hora de llegada : 16:15
<b>Garraioa /Transporte</b>	Autobusa / Autobus	
<b>Aipatzekoak / A tener en cuenta</b>	Hay que llevar hamaiketako y comida. Se ruego puntualidad para poder llevar a cabo las actividades.	

## LH OHARRAK / NOTIFICACIONES LH

### LH 1

#### 9-10 de mayo SALIDA a TXURRUKA

Maila/ Curso	LH1	Prezioa/Precio	53,75€
Nora/ Destino	TXURRUKA	Irteera ordua/ Hora de salida	habitual
Noiz/ Cuando	9-10 de mayo	Itzulera ordua Hora de llegada	habitual
Aipatzekoak/ Comentarios	<b>En la mochila pequeña:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>● Almuerzo</li><li>● Agua</li><li>● Según el tiempo (crema solar, chaqueta)</li></ul> <b>En otra mochila o maleta:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>● Saco de dormir</li><li>● Ropa de cambio</li><li>● Zapatillas de casa</li><li>● Neceser</li><li>● Pijama</li></ul>		

Nota: en el caso de que algún alumno o alumna tuviera que tomar algún medicamento (antibiótico,...) en el momento de la salida, les informamos que se debe aportar el certificado médico

---

### LH2

#### SALIDA a IRRISARRILAND

Los días 9 y 10 de mayo los alumnos de LH2 irán a Irrisarriland. La semana que viene se os comunicará lo que tengáis que llevar.

Por otro lado, os informamos que en el caso de que algún alumno o alumna tuviera que tomar algún medicamento (antibiótico,...) en el momento de la salida, es necesario traer un certificado médico.

---

### LH5

#### GARBIGUNE

El 6 de mayo, los/as alumnos/as de LH5 acudirán en diferentes turnos al garbigune de Zarautz para conocer su gestión.

## DBH OHARRAK / NOTIFICACIONES DBH

### DBH1

Los/as alumnos/as de 1º de la ESO los días 3 y 9 de mayo recibirán sesiones informativas sobre **la alimentación** para que tengan conocimientos sobre este tema. El programa será impartido por la dietista Leire Izagirre y el médico Félix Zubia.

---

### DBH4

El próximo lunes los/as alumnos/as de 4º de la ESO comenzarán el tan deseado viaje de estudios. Recorrerán los Países Catalanes disfrutando de una merecida excursión durante cuatro días: Rafting, barranquismo, Barcelona, Portaventura... Un premio muy merecido tras este recorrido por la ikastola. ¡Que lo disfruten!

## BESTELAKO OHARRAK / OTRAS NOTIFICACIONES

### DECÁLOGO DE HABLANTE ECOLOGISTA

¿QUÉ TIENEN QUE DECIR LOS ZARAUZTARRAS SOBRE EL IDIOMA?

### [IKUSI BIDEOA](#)

---

Besterik gabe, agur bero bat.  
ZUZENDARITZA

## SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

Maria Etxe-txiki kalea 14,  
20800 Zarautz  
Tif: 943 831 752

[zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus)



[zarauzkoikastola.eus](http://zarauzkoikastola.eus)